


A T Z O K O
Ardoin

10. zbk.

1999ko azaroaren 28a.

*eta andoaindarrak
ando
ainda
rrak*



Jai egunak



SEI EGUN LAN ETA BAKARRA JAI

Orain ez bezala, gure guraso eta aiton-amonen garaian igandea bakarrik izaten zen jai aste osoan, larunbatak, ia lantokirik gehienetan, lanegunak izaten baitziren. Luxu handiko kontua zen 'sábado ingles' egitearena. Lan aste klase hori Bonbasetan izaten zuten, esate baterako. Astean zehar, egunero-egunero hiru ordu laurden gehiago sartzen zuten, gero larunbata libratu ahal izateko. Bonbetan zuten ohitura hori orain denbora asko ez dela zabaldu zen herriko gainontzeko lantegietara. Gerra osteko garaia ondo sartuak zirenean, artean, herritar gehienek larunbata ere lan egiten zuten.

Baina 'jai egunak jai egingo dituzu' dioen mandamentua ongi baino hobeto errespetatzen zuen ahal

zuenak. Dendariek ez, igandeetan ere dendak zabaldu egiten baitzituzten orduko hartan. Lantegietan eta baserrietan, ordea, igandean albo batera uzten ziren eginbeharrak. "Noiz edo noiz belarretan aritzea tokatuko zitzaingun, baina gainerantzekoan, igandeetan arroparik garbitu eta horrelakorik ez zen egiten. Animalien azpiak eta horiek egiten aritzen ziren gizonezkoak, baina hori bukatu eta fuera!, igandea libre", esan du Mikela Ansak.

Baserrian bezala kalean ere, igandeko deskantsua noiz etorriko zain-zain egoten ziren beraz, eta ez lana egiteari utziko ziotelako bakarrik, igandeak entretenimendurako kasik egun bakarrak zirelako baizik. Bereziak oso.

TXISTULARIEN DIANA

Txistu doinuaz esnatzen zen Andoain iragan ez hain urruneko igande guztietan. Inaxio Aizpurua, haren anaia Jorge atabalaria eta Angel Marruxkino aritzen ziren herrian jai eguna zela txistu doinuaz iragartzen. Manuel eta Martin Aizpuruak ere jardun zuten gero eginbehar horretan berean.

Txistulari bandako kideak goizean goiz biltzen ziren Etxeberrieta inguruan, eta kalez kale txistu eta atabala jotzen ibili ondoren, meza hasterako bukatzen zuten euren ibilbidea Goikoplazan, elizaren parean hain justu. Izan ere, herriko gainerantzeko ia jardun osoa bezala, txistulari bandarena ere igandeko elizkizuna iragartzen

zuten kanpaiak entzutearekin batera eteten zen.

Igandea ez beste jai egun berezietan -San Jose, San Juan eta horrelako zaindaria gogora ekartzen zirenetan- meza ostean ere jarraitzen zuten kaleak musikaz alaitzen; bazkaloste garaian-edo, etxez etxe aritzen ziren pieza ezagunak jotzen, sosa batzuren truke. "Gure etxera urtero-urtero etortzen ziren San Juan egunez", gogoratu du Loren Navarrok. "Debalde aritzen ziren txistulariak orduan, eta egun horiek aprobetxatzen zituzten eskupeko piska bat lortzeko", zehaztu du Miguel Amasek.



Udal txistulari bandaren argazkia. Inaxio Aizpurua, Angel Urrutia eta Jorge Aizpurua.



Miguel Amas

"Debalde aritzen ziren txistulariak orduan, eta San Juan eta egun horiek aprobetxatzen zituzten eskupeko piska bat lortzeko".

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu aldizkaritxo honetan orain mende Erdiko gizartearen erlijioak zuen garrantzia. Bizitza oso baldintzatzen zuen sinesmenak, eta haren arabera antolatzen zen bizitza; eta jakina, jai egunak bereziki.

Igandeko lehenengo betebeharra izaten zen mezara joatea. San Martinen goizeko hamarretan izaten zen meza nagusia; baina elizako bueltarekin hori baino lehen bete nahi izanez gero, bazen aukera goizeko seiretatik hasita. Gurutze Santuaren ermitan, berriz, zortzirak eta erdietan ere izaten zen meza. Batera edo bestera, goiz edo beranduxeago, baina mezetara



Miren Zarraga

"Astelehenetan eskolara sartu bezain pronto galdetzen zigun maistrak mezetan izan ote ginen bezperan. Norbait ikusi ez bagenuen segituan esaten genuen halako ez zela izan"




Joxemari Amutxastegi

"Meza aurretik hasten ziren tipi eta tapa paretaren kontra pelotan. Kanpaiak jo orduko geratzen ziren denak, eta meza irteeran jarraitzen zuen jokoak".

huts egiten zuen andoaindarririk ez zen herrian garai hartan. "Astelehenetan eskolara sartu bezain pronto galdetzen zigun maistrak mezetan izan ote ginen bezperan. Norbait ikusi ez bagenuen segituan esaten genuen halako ez zela izan", gogoratu du Miren Zarragak. Mezara joatea obligazioa zen, hortaz, obligazio sakratua.

Kontakizun horietan ari garela, meza garaia aprobetxatuta kontzejuean egi-

ten ziren pilota partiduak etorri zaizkie gogora mahaiaren bueltan bildu ditugunei. "Meza aurretik hasten ziren tipi eta tapa paretaren kontra. Kanpaiak jo orduko geratzen ziren denak, eta meza irteeran jarraitzen zuen jokoak", esan du Joxemari Amutxastegik. "Horrek esan nahi du", gaineratu du, "horretan ere apaizek agintzen zutela". "Bai horixe!" zehaztu dio paretik Miguel Amasek: "oraindik ere herri askotan badira kartelak jartzen dutenak 'se prohibe jugar a pelota durante el oficio religioso'".



Ez zen iganderik kontzejuean mutilak pilotan aritzen ez zirenik. Hori bai, meza garaian, partida eten egiten zen.

BASERRITARRENTZAKO BANDOA ETA BERTSO PAPER SALTZAILEAK

Aurreko zenbakian kontatu genuen, aspaldi ez dela aguazilak kalez kale bandoa irakurriz jakinarazten zituela alkatearen erabakiak. Baina aguazilak, noski, baserriz baserri ezin izaten zuen ibili. Zer egiten zuen orduan?, ba baserritarrak biltzen ziren egun eta lekura jo. Eta hori noiz izaten zen? Ba jakina: mezaren irteeran.

Mikela Ansa eta Joxepa Ormaetxeak ondo gogoan dute nola aguazila San Martin atariko petrileria igotzen zen eta bandoa irakurtzen zuen. "Zortzitako mezaren irteeran hasten zen bandoa irakurtzen, eta elizkizun guztiak bukatu ostean errepikatzen zuen. Kontribuzioa ordaintzeko azken egunak zirela, eta herri lurrak erabiltzeko suerteak zirela..., eta horrelakoen berri ematen zuen", esan du Mikelak.

Meza eta meza ostea zen, bada,

Bertzo Berriak J. M. Ugaldet Jarriyak

1	2	3	4	5
<p>Erti koskor-batian Jusdan igandian, Itzal ederra segon, Belas batian Lau arzo ari siran, Gogotik musian Berak nay antelako Amar erregian Eta aldamenian Bocilla batian Orbelan sartian Prekatu arian Paliak egiteko Asarretzian.</p>	<p>Fanchika es Couchest Aidi basetian Ansa eta Mikela Besse aldatian Amarrekotan bertan Daude oraindik Tantgatik berri Estiue imporritan Eder kifurikan Ayon begitikan Atera danikan Ikusi orindikan Sasi tartetik beida Egonagatikan.</p>	<p>Aundiya paso juantzan Chikiya ere bay Puerik esdu ihorik Eta ere nay Besteik es isan arren Puotu es eta bay Amar taslo enbido: Buki nay durunay Mikelak euki nay Anak es usi nay Conchess ja ja jay Es aldeusle nay Jaso itzulo bi taota: Es dilagay nay.</p>	<p>Irugaren pasara San osu polita Anak bik erregelkin Ordo aundiya Conchessik esdifat nay Nai baden chikiya Ogei tanto anbiro Es dan galestiya Bi bateko suya Bestia saspilya Azerantian iya Ause komeriyia Eskite galdit suran Joku guesiya.</p>	<p>Jokuba bukatuta Jarri siranian Acharu enginsiran Danak batian Arlo asko sukatan Ttipan berrentian Lakatu siranden Brekha batian Ni sasi artian Apek ikustian Serrara jantzian Beidata unian Erreka asi suten Lau ben artian.</p>

Joxe Manuel Ugaldet 'Tatulu-k' 40.eko hamarkadaren hasieran jarritako bertsoak.



Mikela Ansa

"Kontribuzioa ordaintzeko azken egunak zirela, eta herri lurrak erabiltzeko suerteak zirela... eta horrelakoen berri ematen zuen aguazilak elizkizunen irteeran".

asteko ekitaldi sozial garrantzitsuna eta horretaz probetxua batek baino gehiagok ateratzen zuen. Esate baterako, pertso-paper saltzaileak. "Etorzen ziren kanpotik bertso berriak kantatuz eta haiek saldu egiten zituzten paperean idatzita", jakinarazi digu Bixente Olanok. "Xentimo batzuk edo pezeta edo ez dakit zenbatean salduko

zituzten bertso paper haiek, baina jendeak erruz erosten zituen. Arrakasta handia zuten. Izan ere, garai hartan herrian bertsoak kantatzeko zaletasun ikaragarria baitzegoen. Ez orain bezala!", gaineratu du

Gerra aurretik hasi eta gerra osterrarte makina bat bertso-paper saltzaille ezagutu dituzte herrian. Miguel Amasen arabera, gehien etortzen zena Mendaro Tximistaka izeneko gizonetako izaten zen. Joxemari Amutxastegik gogoratu du, oster, beso-motz batek ere maiz egiten zuela Andoainerako



Bixente Olano

"Etortzen ziren kanpotik bertso berriak kantatuz eta haiek saldu egiten zituzten paperean idatzita. Arrakasta handia zuten. Izan ere, garai hartan herrian bertsoak kantatzeko zaletasun ikaragarria baitzegoen. Ez orain bezala!", gaineratu du.


buelta. Horien guztien gaitetik, baina, Joxe Manuel 'Tatulu' dute denek ondo gogoan. Jose Manuel Ugalde 'Tatulu', Martin Ugaldere osaba, bertsolari andoaindarra zen, eta bere herrian bezala inguruetan ere aritzen zen bertso-paperak saltzen. Hura izan omen zen jardun horretan ibili zen azkena. "Ondo gogoratzen naiz nola abesten zuten berak 'Markesaren alaba'-rena", esan du Miren Zarragak. "Bai; Txirritaren bertsoak, eta Xenpelarrenak eta... horrelakoak saltzen zituen", gaineratu du Joxemari Amutxastegik.

APERITIBOA ETA BAZKARIA

Meza osterekin ari gara oraindik. Esan dugu elizako atarian entzuten zutela baserritarrek bandoa, eta hara gerturatzen zirela bertso paper-saltzailleak. Irteera hura izaten zen, baita ere, lagun-arteko hitz aspertuan has-teko gunea. Aste osoan lanean eman ostean, eliz atarian egiten zuten topo ezagun eta lagunek; bilera haiek, dena den, tabernan izaten zuten segida, aperitibo garaian.

"Meza nagusiaren ondoren hartzen zuten aperitiboa, bai Elizondan edota baita Inaxionean ere", esan duten gure informatzaileek. "Baina baserritarrek goizean goizetik egiten zuten tabernako bisita", zehaztu du Miguel Amasek: "Baserrikoak egin ondoren etortzen ziren gosari txikia egitera Elizondonera; eta han hartzen zuten zerbait anis pixka batekin".

Nolanahi ere, aperitiboak mezaren aurretik ez baizik haren atzetik izaten ziren. "Elizondo eta Inaxioneko komedoreak bete egiten ziren. Inaxioneko Bixenta goizean zazpiretako sartzen zen sukaldean aperitibo garaikoak prestatzera", gaineratu nahi izan du



Miguel Amas


"Elizondo eta Inaxioneko komedoreak bete egiten ziren. Inaxioneko Bixenta goizean zazpiretako sartzen zen sukaldean aperitibo garaikoak prestatzera".

Miguelek. Izan ere, haragi egosia, salda eta horrelakoekin betetzen baitzen sabela, aperitiboko txurrutarekin batera. Eta zer txurrutarekin lagunduta? Bapattar piska batekin akaso, baina gehienetan ardoarekin, ardo txarrarekin gainera, gure mahaikideek zehaztu nahi izan digutenez.

Baina jakina, aperitiboa gizonen kontua bakarrik izaten zen. "Orduan emakumezkoak ez baitzen ibiltzen tabernan", esan du Bixente Olanok. "Hala da bai; igoal andregaiarekin joan eta hura atean geratzen zen zain", gaineratu dio Joxemari Amutxastegik.

"Gizonezkoak baso erdiak hartzen aritzen ziren bitartean, emakume guztiak etxean izaten ziren, bazkaria prestatzen", gaineratu du Bixentek.

Astegunekoen aldean berezia izaten zen igandeko bazkaria, baina kategoria handikoa, ez oso. Babarrunak alde batera uzten ziren eta "jaten ziren garbantzuak txorizoarekin edota arroza haragiarekin; arroz asko eta haragi gutxiarekin, jakina", esan du Miren Zarragak. "Etxe bakoitzean ahal zena



Gizaseme kuadrila bat Inaxioneko atarian. Kaleberriko taberna hark gainezka egiten zuen igandeko aperitibo garaian.



Bixente Olano

"Gizonezkoak baso erdiak hartzen aritzen ziren bitartean, emakume guztiak etxean izaten ziren, bazkaria prestatzen".

egiten zen bazkari berezia prestatzeko", gaineratu du Maria Esther Arrietak. "Bai, gogotik saiatzten ziren garai hartako emakumeak. Arroz con leche, Suspiros de monja..., eta horrelakoak ere jartzen zituzten postretarako", esan digu Joxemari Amutxastegik. "Bai, eta sagar erreak ere asko: errege-sagarrak, txalakak...", bukatu du Mirenek.

BARKILERO ETA GOXOKI SALTZAILEAK

Barkileroa igandero etortzen zen Andoainera. Tolosako Ibañez pastelerikoen aitak zuen lanbide hori eta astero egiten zuen bidaia tranbian bizkarrean "pote haundi gorri horietako bat hartuta", Roke Ansaren kontakizunaren arabera. Tarte batean Bastero inguru horretan egoten zen, baina gero meza eta dantza aprobetxatzen zituen ahalik eta salmentarik onenak egiteko. "Aitonak euren bilobei igandero-igandero erosten zieten barkiloa. Hori zen ohitura", esan du Joxepa Ormaetxeak.

Barkiloa erosteak xarma berezia zuen, pote gaineko erruletan jokoa egin behar izaten baitzen aurrena. Roke Ansak gogoratu duenez, "hamar xentimo-edo barkileroari eman eta hark erruletari eragiten zion. Sorteoan tokatzen zitzaizun barkilo bat edoigoal bost..."



Aiton-amonek igandetan euren bilobei barkiloa erostea zuten ohitura.



Joxepa Ormaetxea

"Aitonak euren bilobei igandero-igandero erosten zieten barkiloa. Hori zen ohitura".

"Oso polita zen egiten zuen soinua", esan du Lorenek. "Hara; zuen uhal bat larruzkoa eta harek markatzen zuen zenbat barkilo egokitu zitzaizkizun. Baina uhal hura geratzen zen beti batean eta bian", zehaztu nahi izan du Maria Esther Arrietak.

"Barkiloa zen goxo-goxoa, e...", azpimarratu dute denek. Miren Zarragak zehaztu duenez, kruz-kruz egiten zuen horietakoa zen eta barruan ezta izaten zuen.

Kasik barkiloa bezain estimatua izaten zituzten herriko haurrek Tronpoleoneko karameloak. Garai hartako haurrek ere izaten zuten igandetan paga apur bat -hamar xentimo edo erreala...- eta meza nagusitik irtenda haren dendatik buelta egiten zuten igandero, ia hutsik egin gabe. "Tronpoleon zegoen orain Labe-txiki dagoen horretan. Sartzen zen Aldunzindarrak bizi diren etxeko portaletik eta ateratzen zen gero orain panaderiko atea den horretatik", esan du Maria Esther Arrietak. Joxe eta Juanita izaten ziren Tronpoleoneneko mostradore atzean, neska-mutilei goxokiak saltzen, eta

maiz, haien adar-jotzeak ere jasan behar izaten zituzten. "Hiru edo lau neska biltzen ginen meza ostean eta joaten ginen Tronpoleonera adarra jotzera. 'Tronpoleon alelhuya!' kantatzen genuen eta korrika ihes egiten genuen. Hara zer txorakeria baina hori eginda poz-pez ateratzen ginen", kontatu digu Loren Navarrok.

Goxoak ziren oso Tronpoleonen saltzen zituzten gaileta, goxoki eta beste-lako litxarkeriak. Kantoï Zaharreko obradorean (Kaleberritik Kale Nagusira doan pasabide horretan) saltzen zirenak ere ez ziren nolana hikoak. "Cafe con leche-ko karamelo haiek ederrak ziren gero, mekauen...", esan du Bixente Olanok. "Bai; egiten zituzten



Lucio Aparicio, urtetan Andoainen karroarekin goxoki saltzaile ibilitakoa.

hola bloke haundi batzuek eta gero labanarekin ebakitzen zituzten eta karamelo txiki goxo askoak saltzen zituzten", gehitu du Maria Esther Arrietak. "Egin ahala saltzen zituzten...", zehaztu dio Loren Navarrok.

Bazen garai hartan goxoki modura saltzen ziren beste produktu estimatu batzuk ere 'volados' izenekoak. Azukrez osatuta zeuden eta esponja moduko goxo harroharrotan saltzen ziren. "Gusto berezia zuten..., eta gainera gaixontzako onak omen ziren", esan du Miren Zarragak. "Inoiz etxean norbait gaiso jarriz gero, hura uretan nahastu eta edateko ematen zitzaion".

Dendetan izan ezik, nolana hiri ere, goxoki saltzaileak kalez kale ere ibiltzen ziren herrian. Lehendabizi, Monje abizeneko familiakoek izan



Roke Ansa

"Hamar xentimo-edo barkileroari eman eta erruletari eragiten zion. Sorteoan tokatzen zitzaizun barkilo bat edoigoal bost..."

zuten negozio hura Soriatik etorri zirenean; gerra baino lehen izan omen zen hori. Baina geroztik Apariciotarrak egin ziren ezagun ofizio horretan. Igande arratsaldeetan Bastero inguruan jartzen zen Lucio Aparicio lehenik eta musika hasten zenean Goiko edo Bekoplazara joaten zen, segun eta non zegoen musika. Kalean ezezik Iparragirreko zineman ere izaten zuen hark postua goxokiak saltzeko.

Almendrak, karameloak, garrapiñadak, txufak, kakahueteak, regalizak...; horiek denak karroan hartuta ibiltzen zen Aparicio kalez kale. Salmentak handitzeko asmoz edo, gainera, zozketa bitxiak ere antolatzen zituen. Jokurako kartak saltzen zituen gero haien artean zozketa egin eta erregaloe emateko. "Saltzen hasi orduko hasten zen esaten bat bakarrik geratzen zitzaiola, azkena erosteko", gogoratu du Rokek. "Arriba, arriba la suerte!!!", hasten zen eta karta irabazleak ateratzen zuen gero", jarraitu du Miren Zarragak. Karta hura zuenak saria ematen zuen etxera: erroskila batzuk, goxokiak...

Gerra aurretik bazen zinea Andoainen eta geroztik ere igandeetan pelikulak ikustera joateko ohiturak bere horretan jarraitu zuen herrian, harik eta orain gutxi arte zine aretoak desagertu ziren arte.

Loren Navarrok artean oso txikia zela ikusten zituen Cine Luminosoko pelikulak. "Pelikulak anuntziatzeko koadro antzeko batzuk ekartzen zituzten gurera, eskaparatean jartzeko. Gero, igandeetan, haiek ematera joaten nintzen eta uzten zidaten ordaindu gabe sartzen. Han ikusten nituen pelikula mutuak", ekarri du gogora. Kontatu digutenez, Deruque anai-arrebena zen Cine Luminoso. Gero iparragirretarrek hartu zuten zinearen ardura, eta euren abizena jarri zioten aretoari.

Gerra ostean, zinerako ohitura hura zabaldu egin zen. Lasalleko fraileek arkupetan botatzen zuten pelikula, Acción Catolica-koek ere jarri zuten zinea, eta geroztik, maizatarrek ireki zuten areto berria.

Eta zein pelikula ikusten zituzten horietan denetan? "Genoveva de Brabante eta horrelakoak", esan du Miren Zarragak. "Bai, horiek eta rantxerak: 'Allá en el rancho grande', 'El Séptimo



Loren Navarro

"Pelikulak anuntziatzeko koadro antzeko batzuk ekartzen zituzten gure eskaparatean jartzeko. Gero, igandetan, haiek ematera joaten nintzen eta uzten zidaten ordaindu gabe sartzen".

DANTZALDIA

Igande arratsaldeetan zinera joaten zenak, dantzaldia galdu egiten zuen, aldeberean izaten baitziren bi ekitaldiak igande arratsaldeetan. Asteburu batean Goikoplazan eta hurrena Bekoplazan, txandaka, izaten zen dantzaldia. Hori bai, deskuidoan euria eginez gero, kontzejupean antolatzen zuten musika eta dantzarako lekua.

Musika banda eta txistulariek alai-



Cine Luminosoko aretoa Laborde lantegiak antolatutako jaialdi batean.

Cielo', 'Qué verde era mi valle'..., forofa hutsa nitzen ni!", zehaztu nahi izan digu Maria Esther Arrietak.

Pelikula kasto eta puroak ziren denak, hori bai. 'Tres R' zutenik -'reparo' esan nahi zuen R horrek-, usaitu ere ez. "Oso ondo gogoratzen naiz 'La manos ensangrentadas' krimen bati buruzko historia kontatzen zuen pelikulari 'R'-ren bat jarri ziotela", esan du Maria Estherrek. Izan ere, garai hartako zentsura zorrotza baitzen oso: 'por-siakaso' eszena gogorrik bat ere ez. Eta gogorra zer zen? Ba, edozer gauza. Muxua ere bai, segun eta nolakoa zen. "Muxuak baziren, baina guri esaten ziguten apaizek pelikulan muxu ematen zutenean begiak itxeko!", esan du Joxemari Amutxastegik. "Baina orduan kultura ere kaxkarra genuen", zehaztu du Miguel Amasek, "muxuak ematen hasten zirenean eskandalua izaten zen 'de cristo padre". Muxuak baino eszena gogorragorik ez zen ikusten, moztu



Esther Arrieta

"Ikusten genituen 'Alla en el rancho grande', 'El Séptimo Cielo', 'Qué verde era mi valle'... Forofa hutsa nintzen ni".

egiten ziren. "Korterik ez zuen bakarria NO-DOa izaten zen. Hura oso-osorik ikusi behar izaten genuen", gaineratu du Miguelek.

Miguel bezala, andoaindar asko ziren igandero zinera hutsik egin gabe joaten zirenak. Eta horiek erreserbata izaten zuten euren lekua. "Ez geunden abonatuta, baino leku fijo batean jartzen ginen beti; andregai eta biok 'en la fila 14' beti".

tzen zuten igandeatoko berbena hura. "Bandak bederatzi pieza jotzen zituen", ekarri du gogora Joxemari Amutxastegik. "Aurrena", zehaztu du Miren Zarragak, "hiru pieza jotzen zituzten eta gero txistulariek hartzen zuten turnoa. Haien atzetik beste hiru, eta deskantsua berriz ere; eta azken hiru pieza gero". Dantza arratsalde erdian hasten zen eta zortziretan bukatzen.

Mahaiko guztiak bat etorri dira esaterakoan "oso pieza politak" zirela orduan jotzen ziren haiek. "Balsak, pasodobleak..., denetarik jotzen zuten", kontatu du Loren Navarrok. "Azkena pasakallea izaten zen, San Martzialgo pasakallea", ekarri du kantuan gogora Miren Zarragak.

Joxemari Amutxastegiaren arabera, "faborez eskatu behar izaten zitzaion

neskari ea dantzatu nahi zuen”, eta askok ematen omen zituzten “kalabazak”. “Normalean mutil berdinarekin dantzatzeko genuen”, esan digu Joxepa Ormaetxeak; eta askotan mutil hori bihurtzen zen gero senargai.

Baziren, ordea, dantzatzea izugarri gustatu eta batekin eta bestearekin igoal-igoal dantzatzeko zutenak; eta hori, askoren begietan ez omen zegoen batere ondo ikusia. ‘Al agarrao’ dantzatzea debekatuta ez zegoen, baina *guk mutilekin dantzatzeko genuen eta askok gaizki begiratzen gintuzten horregaitik*. Ginen “unas...” esan du Mirenek esaldia bukatu gabe utzita. “Hara:”, jarraitu du, “bi pieza gehiago jotzen zituztelako Hernanira joaten hasi ginen gu eta Mariaren alaben domina kendu egingo zigutela ere esan ziguten...”.

Orain arteko kontakizuna herrian egiten zen dantzaldiei buruzkoa izan da. Baziren, baina, baserri inguruetan egiten ziren bestetarik ere: bilerak edo euskal bilerak. “Plazara etortzen ez zirenek mendian egiten zuten dantzaldia”, jakinarazi du Joxepa Ormaetxeak. “Izaten ziren bilerak Otitan, Etxaben, Kaxkabeltzan ere bai, Xoxokan...”, gai-



Igande arratsaldeko dantzaldia Goikoplazan.

neratu du Joxemari Amutxastegik. Soinujole bat jarri eta haren musikarekin ondo baino hobeto konpontzen ziren dantzan baserri auzoetan. Kontatu digutenez gainera, maiz, askoz ere dibertigarriagoak gertatzen ziren dantzaldi haiek, garai hartako apaizen begiak ez baitziren hain urrutira ailegatzen.



Miren Zarraga

“Bandak bederatzi pieza jotzen zituen. Aurrena hiru, eta gero txistulariek hartzen zuten turnoa”

MUTIL ETA NESKETAN ARITZEA

Mutil eta nesketan nola egiten zuten galdetu orduko mahaiaren bueltan biltzen diren guztiek begiratu diote Joxemari Amutxastegiri. Kontu horiek denak inork baino hobeto harenek dakizkiela bota dute aho batez. “Nik?”, esan du berak ordea; “Joxepak eta beste baserriar horiek dira iaioak horretan! Beraien etxetarako argirik gabeko bide ederra baitzegoen piska bat aprobetxatzeko...”. Barre artean azkar zehaztu dio albotik Joxepak “bizitzako bost urterik onenak neska-me” pasatu zituela eta horiek denak galdu egin zituela berak. Baina eztabaidak eztabaida, argi geratu da Joxemari jantzia dela kontu horietan, edo behintzat, kontu horiei buruz hitz egiteko grazia berezia duela.



Miguel Amas

“Iparragirreanean behintzat, argia joaten zenean entzuten ziren builak: ‘Ahora! aprovechar, aprovechar!’”

Esan digutenez, garai hartan nesketan aritzeko arte berezia izan behar zuten, disimuloan eta itzalpean aritu behar baitzuten ezer lortu nahi zuenak. Baina lortzen zuten, eta horretarako baziren leku bereziak: zinea eta dantzaldia bera, esate baterako.

Zinea askok aprobetxatzen zuten andregaiarekin goxo-goxo egoteko. “Iparragirreanean behintzat, behin baino gehiagotan joaten zen argia eta horrelakoetan entzuten ziren builak: ‘Ahora! Aprovechar, aprovechar!’”, kontatu du Miguel Amasek. “Andregaiarekin joanez gero”, jarraitu dio Joxemari, “jartzen ginen silletan. Behean izaten ziren bankoak, eta atzekaldean, berriz, silla hobeak. Han jartzen ginen. Pena izaten zen egurrezkoak izaten zirela eta soinu asko ateratzen zela mugitzean!” esan du Joxemari Amutxastegik.

Denek begiratu diote Joxemari eta horrelako kontuei buruz zenbat dakien leporatu. “Baina ezin izaten genuen ezer egin eta! garai hartako korseek alanbreak eta denak zituzten. Mina ere hartzen genuen saiatuz gero!”, esan du solaskideen barre artean.

Saiatzeari ezin utzi, ordea. Joxema-

rik berak gogoratu du dantzaldietan ahaleginak egiten zituztela: “Euria egiten zuen egunak izaten ziren egokienak. Neska gabardinarekin jantzita joaten bazen primeran; taka!, haren azpitik disimuloan eskua piska bat sartuz gero, ez zuen inork ikusten...” Baina saio horiek behin baino gehiagotan moztuzten zituzten “ez, ez; eskua gainetik” esaldiaz, edo zaplatzeko batez, akaso.

Lige kontuetan, nolahi dela ere, gizonezkoek zuten ekimen osoa, bai xirriak egiteko garaian, eta jakina, baita deklaratzeko orduan ere. “La mocilla detrás del gato; pa’ rato!” esaten zen garai hartan, halakorik ez zela egin jakinarazteko edo”, kontatu digu Joxepa Ormaetxeak.



Joxemari Amutxastegi

“Baina ezin izaten genuen ezer egin eta! garai hartako korseek alanbreak eta denak zituzten!”

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Ia urtebete igaro da 'Atzoko Andoain eta andoaindarrak' hilabetekaria argitaratzeari ekin genionetik. Joan den urteko Gabonetan aurkeztu genizuen zein zen gure asmoa, eta jabetu orduko berriz ere gainera etorri zaizkigu urte bukaerako jai horiek. Hain zuzen ere, aintzinako Andoainen Gabonak nola ospatzen ziren kontatu behar dizuegu aldizkariaren urteko azken zenbakian.

Oraingoen aldean, familia giroko kutsu handiagoa zuten egun haiek. Sukaldeko epelean biltzen ziren senideak eta kantuan eta jokoan ematen zituzten Gabonak. Kalean parrandarik ez zen izaten. Desberdinak ziren.

Olentzero eta kantu-eskea, lehen errege kabalgata eta Errege eguneko opariak..., horiei denei buruzko kontakizuna prest daukagu jada hilabete barru zuei iristarazteko.



Taldea berritu nahian gabiltza

Ikaragarri kontu zahar pila astindu ditugu orain arte, baina oraindik baditugu gai ugari kajoian gordeta. Datorren urtean ere, hilabetero argitaratuko da aintzinako istorioei buruzko aldizkaritxo hau. Horretarako, ordea, kontu horiek ondo ezagutzen duen jendea behar dugu. Aurtengo taldea berritu eta osatu egin nahi baitugu, izan ere. Animatu zaitez eta deitu 300732 telefonora.



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Andoingo Udaleko
Euskara Lansaila



Andoingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udala artxiboa eta Aparicio sendia. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.